| | BENJAMINAK (LH 3-4 maila) | ALEBINAK (LH 5-6 maila) |
|---|---|---|
| JOKALARI KOPURUA | 4 jokalari | 5 jokalari |
| ALDAKETAK | Aldaketak atsedenaldietan bakarrik egingo dira, jokalariren batek min hartuz gero izan ezik. Kasu hauetan, gutxien jokatu<br><br>duen jokalaria sartuko da, baina ez da aktan apuntatuko | |
| JOKATU DAITEZKEEN ZATI KOPURUAK | Gehien eta gutxien jokatu duten jokalarien artean, gehienez zati baten aldea egon daiteke,(luzapenak barne). Adibidez, taldekideren batek 6 zatiak jokatu baldin baditu, beste guztiek 5 zati jokatu behar dituzte | |
| IRAUPENA ETA ATSEDENALDIA | Triangularrak<br>Hiru partidatxo ordu terdian<br>4 laurden 5 minutuko.<br>Partida arruntak<br>Partida bat ordu batean<br>6 laurden 6 minutuko.<br>Atseldenaldiak minutu 1ekoak izango dira. | 6 minutuko 6 zati. (6 x 6).<br>Atseldenaldiak minutu 1ekoak izango dira.<br>Triangularretan 5 minutuko 4 zati. |
| SAKEA | Hasierako sakea saltoa da. Saskiraketen ondoren sakeak saskiaren behealdetik aterako dira. | |
| PARTIDUKO AZKEN EMAITZA | Saskiraketa kopuruen arabera. Berdinketak onartu egiten dira. Ez da hiruko punturik emango.<br><br>Azkeneko emaitzaren balioa gehienez +25ekoa apuntatuko da. | Saskiraketa kopuruaren arabera. Berdinketa dagoen kasuetan, 4 minutuko zatiak jokatuko dira, irabazlea egon arte.(Luzapenean aktan agertzen diren jokalariek jokatutako<br>zati kopuruak kontutan izan behar dira). Ez da hiruko punturik emango. Azkeneko emaitzaren balioa gehienez +25ekoa apuntatuko da. |
| DEFENTSA | Onartutako defentsa bakarra indibiduala da. Zonakako defentsa debekatua dago. Epailearen bigarren abixuan, egiten<br>dagoen taldeari 10 puntu kenduko zaizkio, hirugarren abixuan partidu galdutzat emango zaio. Edozein modutan jokoa<br>eten ondoren (saskiratzea, faltak,baloia zelaitik irtetea...), defentsa norberaren zelaian hasiko da. | |

| | | |
|---|---|---|
| FALTAK | Faltak ASKO pitatuko dira, falta egiteko ohitura mozte aldera. Falta bakoitzeko ez da tiro libre ba ahalbidetuko.<br>Zati bakoitzeko, seigarren faltatik aurrera, tiro libre bat jaurtitzeko aukera ahalbidetuko zaie, erreboterik gabe eta baloi jabetza emanaz.<br>Jaurtiketa librea kanasta azpitik 4 pausotara botako da | Fakta ASKO pitatuko dira, falta egiteko ohitura mozte aldera. Saskira botatzen dagoeneko ekintzan falta egiten bada, jaurtitzaileari 2 tiro libre (bigarrenean errebotearekin) egokituko zaizkio. Falta egiterakoan, saskira botatzen ez badago, bandatik aterako da. Bosgarren faltatik aurrera, tiro libre bat jaurtitzeko aukera ahalbidetuko zaie,erreboterik gabe eta baloi jabetza emanaz. |
| ZIGORRAK | Jokalari batek 5 falta egiten baditu, kaleratua izango da eta bere ordez, ordurarte gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da<br><br>(aktan ez da apuntatuko). | |
| TXAPELKETA MODUA | Ez dago txapelketarik. | 5-6 MUTILAK: Multzo bakoitzeko lehenengoen artean finala.<br>5-6 NESKAK: Multzo bakoitzeko lehenengoen artean finala.<br>5-6 MISTO: 3 jardunaldi liga + final laurdenak+semifinalak. (Eliminatuak jardunalidia izango dute, final eguna izan ezik)<br>Sailkapenean berdinketa egotekotan beraien artean jolastu duten emaitza izango da kontuan. |